

Iratxe Aldasoro Berazierto

B maila • 2 saria

Kaixo! Ni Iratxe Aldasoro naiz, 14 urte dauzkat eta bertakoa naiz, Beasaindarra. La Salle San Jose ikastetxean ikasten dut txikitatik. Niri irakurtzea asko gustatzen zait, horrekin batera pelikula eta serieak ikustea, baita lagunekin egotea ere. Gauza japonesak asko erakartzen naute. Horien artean animeak, mangak eta Shoringi Kempok.



IZARRA EGUZKIARENTZAT

Inongo ATSEDENIK gabe
nabil hara eta hona,

ZERTARAKO?
Hori nahi nuke nik jakin.

Inolako ZENTZURIK gabe
nabil hara eta hona,

ZERTARAKO?
Gaueko izar hura harrapatzeko.

Inongo AUKERARIK gabe
nabil izarren atzetik,

ZERTARAKO?
Niri eguzkiari emateko.

EGUZKIARI IZARRA opari,
Zertarako?

Nire gau ilunean
GIDARI izateko

Eguzkiari izarra OPARI,
Zertarako?

BAKARDADE LATZEAN
Goxotasuna,
maitasuna ...
SORTARAZTEN dizkidalako.